

"OSTARKU", kolore eta keriza artian

"OSTARKU" ARGAZKI TALDIAK MAIATZAREN 29XAN ARGAZKI RALLIE BAT TA IL HONEN AMAIERAN IKASTARO BAT ANTOLATZEKOTAN DAGO.


Oin dala hamaika urte hasi zian talde moduan biharrian. Santos Vega harrazkerotik dago taldian. Gaur egunian hogeia lagun dia. Ta beste gauza askotan lez, zenbat ta gehixao jakin, orduan ta katixuao sentitzen dia.

Ordu pillua emoten ditxue euren "gela illunian", koloriekin ta kerizekin burrukan. Baiña gustora, hori bai! Santosek esan doskunez "nireztat ebasiño modu bat da. Mendizale batek makillia hartu ta mendira alde eitxen dabenian, mendiko zaratekin, koloriekin... beteta sentitzen da. Nik, oster, hemengo grifoko uraren zaratiakin, artazixen kraskadiakin, errebelatzeko likiduen usañakin gozau eitxen dot."

Ordu asko, afiziñua, pazientzia... ta halan be dana bihar argazki onak etaratzeko: "karrete bakoitzeko argazki on bat etaratzia balitza, segiduan firmauko neuke!"

Sarritxan kriston kamaria erosi bai ta erretratu onak berez urtengo jakuzela pentsatzen dogu. Ta ez da halan, ez.

Erabiltzen ez jakitzeeran, kamariari ez doutsegu bihar dan besteko probetxua



Gela Iluneko aparailuak.

RAUL BOGAJO

"Argazkixak etaratzia
ebasiño modu bat da"

etaratzen. Oin, kamara ona zein eskastxuaua erabilli, argazkixak eitxera ohitzia ondo baiño hobeto dago. Argazkixa ez da kartulina zati huts bat; sarritxan urtiak aurreraoko sentimientuak, berbak edo pertsonak ekartzen doskuz akordura.

Koloreko argazkixa bakarrik hiru kolorien deskonposiziñua da, magenta, orixa ta cyan koloriena. Zuri ta baltzeko argazkixan, oster, zuritxik baltzera doiazten tonu gris mordua lortu leikeguz. Halan ba, Santosek aitzera emon doskunez "tonu guztixak bere neurrixan lortu ezkerro ta argazkixak zeozer esaten badosku, esanguratsua bajaku, zuri ta baltzeko argazki on baten aurrian gozala esan leike."

Aitxatu dogun lez, Maitzaren 29an, Argazki Rallie bat burutuko da, gai ta ibilbide jakin bati lotuta. Geruago, Maiatzaren azkenengo astian ta Ekaiñaren lehenenguan zihar ikastaro basiko bat emango dute, arratsaldeko 7etatik 9etara. Bertan makiñiaren posibilidadiak ganoraz ikustiaz gain, errebelatze, konposiziño ta argi kontuetan sakonduko da.

Estibaliz González



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen**

bihotzean

arral s.l. eksklusibak

Luis Cañas • La Española azeituna
La Verja zumo eta Iturri kontserben

BANATZAILEA

Goitondo Goikoa poligonoa - B-3 Pabiloia
Telefona: 17 60 75 • Mallabia

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

DANOTZ

* TXERRI OKELA
* OILASKOAK
* SAGARDOA TA
TXAKOLINA

Valdespina, 9